

URIGINTZA LIZENTZIEN TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

1. artikulua. OINARRIA ETA IZAEREA

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 106. artikulua emondako ahalmenak erabilteko 9/2005 21. artikuluko 1 eta 4 ataletan ezarritakoagaz bat etorrira, udal honek *Urigintza Lizentzien Tasea* eskatuko dau ordenantza fiskal honetan xedatutakoaren arabera.

2. artikulua. EGITATE EZARGARRIA

Tasaren egitate ezargarria udalaren jarduera teknikoa eta administratiboa da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak aipatzen dituen eta udal mugartean egin beharreko eraikuntza-ekintzak eta lurzorua erabilera aipatutako Legean eta indarrean dauden gainerako xedapenetan jasotako hirigintza, eraikuntza eta polizari buruzko arauetara egokitzen diren egiaztatzeko, baita kontrol, ondorengo egiaztapen eta ikuskaritza jarduera ere, aurretiazko jakinarazpen erregimenpean, eta, oro har, ikuskaritza, kudeaketa eta hirigintza planeamenduarekin eta bestelako zerbitzu teknikoen aurkezpenarekin lotutakoak.

3. artikulua. SUBJEKTU PASIBOAK

1.- Tasa honetako subjektu pasiboak dira zerbitzuak eskatu, eragin edo interesa daukien pertsona naturalak edo juridikoak, edo egoera arriskutsuan dagoan eraikineko elementuen jaubeak diranak, udal administrazioak lizentzia, egiaztagiri, txosten edo jarduketa eragin dualako.

2.- Era berean, Tributuen Lege Orokorren 34. artikuluan aitatzen diran erakundeak edo pertsona fisikoak edo juridikoak izango dira subjektu pasiboak jaubeak badira, edo, halan danean, eraikuntzak edo instalazioak egiten diran edo lanak egiten diran higiezin errentariak.

3.- Edozelan be, subjektu pasiboaren ordezkioak, hau da, tasa ordaindu behar daben subjektu pasiboak eraikitzaileak eta kontratistak izango dira.

Horregaitik lizentzia eskatzean eraikitzailea edo kontratistea nor dan bere datu guztiekaz identifikatuta deklaratu beharko da.

4. artikulua: OINARRI EZARGARRIA

1.- Honako honeek osotzen dabe tasearen oinarri ezargarria:

- a) Obrearen kostu erreala eta efektiboa, lur mugimenduen lanak, eraikuntza barrietako lanak, eta eraikuntzen kanpoko itxurea edo egiturea aldatzea, barrikuntzak, eraikuntzak lehenengoz erabilteko lanak, horreek erabilteko aldaketak eta eraiste lanak.
- b) Bide publikoan jarten diran eta ikusgai dagozan propaganda kartelak eta errotuluak.

2.- Finkaturiko kostutik salbuetsita dago makineriari jagokon kostua.

3.- 1. atalean ezarritakoaren ondorioetarako, oinarri lez hartu behar dan aurrekontua lanaren betearazpen materialaren kostua da. Oinarria obrako aurrekontuak eta aurrekontu honetako betearazpenaren gastuak osotzen dabe, edo obraren betearazpen materialaren kostuak, edo elkargo ofizialaren oneretxia kostua altuagoa bada.

5. artikulua. TASA KUOTA

Egite ezargarri eta kostu-tarte bakotxarako tasa kuotea EPIGRAFE honeetan finkatutakoa da:

	2020 (€)
1. epigrafea: Obra txikiak, kostuaren arabera:	
1.1- 300 eurotik beherakoak	16,21
1.2- 300,01 euro eta 601 euro bitartekoak	32,44
1.3- 601,01 euro eta 1.502 euro bitartekoak	64,84
1.4- 1.502,01 euro eta 3.005 euro bitartekoak	152,05
1.5- 3.005,01 euro eta 6.010 euro bitartekoak	253,63
1.6- 6.010,01 eurotik gorakoak	304,45
2. epigrafea: Obra handiak, kostuaren arabera:	
<i>2.1-Lehendik dauden eraikinetako edo instalazioetako obrak, 12.020 eurotik beherako kostua daukatenak:</i>	
2.1.1- 601 eurotik beherakoak	71,72
2.1.3- 601,01 euro eta 3.005 euro bitartekoak	280,19
2.1.4- 3.005,01 euro eta 6.010 euro bitartekoak	336,62
2.1.5- 6.010,01 euro eta 12.020 euro bitartekoak	1.016,14
<i>2.2-Lehendik dauden eraikinetako edo instalazioetako obrak, 12.020,01 eurotik gorako kostudunak</i>	1.513,15
2.3. epigrafea: Eraikin berriak	
2.3.1- Zuinketa aktea	1.263,25
2.3.2- Obra lizentzia	1.973,77
3. epigrafea: Lur zatiketak:	
3.1- Urdaibaiko Patronatura bialdu barik	283,33
3.2- Urdaibaiko Patronatura bialduta	323,79

4. epigrafea: lizentziaren luzapena	
4.1- Obra nagusiaren lizentziaren luzapena	170,94
4.2- Obra txikiaren lizentziaren luzapena	29,84
5. epigrafea: Lizentziaren titularidade aldaketa	
5.1- Obra nagusiaren lizentziaren titularidade aldaketa	170,94
5.2- Obra txikiaren lizentziaren titularidade aldaketa	29,84
6. epigrafea: Lizentzia emon ostean proiektua aldatzea	170,94
7. epigrafea: Jarduera edo berari lotutako zerbitzuak iragarteko errotuloak edota kartelak jartzeko lizentzia	32,38

6. artikulua. SALBUESPENAK ETA ZERGA HOBARIAK

Tasan ez da inolako salbuespenik egingo.

1.- Hobari hauek ezarri dira:

a.- Kuotaren **%50** fatxadak margotzeko lizentzietan.

Hobariok zuzenean aplikatuko dira tasaren kitapena egitean, eta hobariaren oinarritzat margotze lanen kostua baino ez da hartuko lizentzia berean beste lan batzuk edo fatxadak margotzearekin zerikusirik ez daukien lanak badagoz.

b.- Kuotaren **%90** eraikinak birgaitzeko lanetan; alde zaharreko Birgaitze Osoko Aldeetan egiten diren lanei deritze birgaitzeko lanak.

Hobaria zuzenean aplikatuko da behin-behineko kitapenean, lizentziaren eskabidea beren beregi jasota uzten bada hobaria izateko eskaria, Bermeoko Udalak luzatutako egiaztagiriarekin batera. Egiaztagiri horretan, Birgaitze Osoko Aldeko lanak direla egiaztatuko da.

c.- Kuotaren **% 100**, abelur jarduera daukien baserriak birgaitzeko edo instalazioetarako obra lizentzietan

Hobaria zuzenean aplikatuko da behin-behineko kitapenean, beti be lizentziaren eskabidean beren beregi jasota uzten bada hobariaren eskaria, abelurren jardueretan jarduten dela egiaztatzen duen agiriekin batera.

d.- Kuotaren **%75** errotuluak euskaraz jartzeagatik.

*e.- Kuotaren **%50** herri barruko merkataritza-lokaletan jarduera berriak irekitzeagatik egiten diren obra lizentzietan, irekitako jarduera berrien establezimenduak publikoarentzako zabalik baldin badaude.*

Hobaria zuzenean aplikatuko da behin-behineko kitapenean, beti ere lizentziaren eskarian edo aurrekomunikazioaren eskabidean beren beregi jasotzen bada hobariaren eskaria. Hobaria onartzeko beharrezkoa izango da jarduera zabaltzeagatik ordaindu beharreko udal tasa ordaindu izana justifikatzea eta Ekonomia Jardueren gaineko Zergan altan emanda egotearen honen ziurtagiriaren kopia aurkeztea hobari eskariarekin batera.

2. Aurreko ataleko hobariak aplikatu behar badira be, behin-behineko kitapena egin aurretik, kasuan kasuko agiri eta guzti berariaz eskatzen ez badira, behin betiko kitapenean aplikatuko dira, eta kasu bakoitzean jagokozan itzulketak eragingo dauz. Kasu horretan ez da etengo behin-behineko kitapena kobretako prozesua.

3.- Birgaitze lanak diren ala ez zalantza dagoenean, udal arkitektoak eginiko txostenak lehenetsiko dira.

4- Artikulu honetan zehazturiko hobarien jatorriaren inguruko zalantzaren bat badago, alkatetzak emango du erabakia, eta erabakia betearazlea izango da.

5- 2013ko apirilaren 11ko sutean kaltetutako higiezinak zaharberritzeko, birgaitzeko edo eraikitzeko obretan % 100eko hobaria edukiko dabe.

Obra lizentzia eskariarekin batera eskatu ahal izango dabe hobaria, beti be, kaltetua izanaren ziurtagiria aurkeztuta.

Sutearen ondorioz partzialki bakarrik edo sua amatatzeko botatako urak kaltetutako kasuetan egin beharreko obrak direla eta kaltetutakoak konpontzeko ez diren beste batzuk be egiteko aprobatuz egiten badira, horiek ez dabe hobaririk edukiko. Halanda ze, horrela bereiztuta deklaratu beharko dabe interesdunek.

7. artikulua. SORTZAPENA ETA KUDEAKETA

1- Tasea ordaindu beharra egitate ezargarria dakarren udal jarduera hasten danean sortuko da. Horretarako, edozelan be, jarduera hasi egin dala ulertuko da subjektu pasiboak edo bere ordezeko subjektu pasiboak eskabidea edo beste agiriren bat aurkezten dauden egunean.

2- Tributu Kudeaketa Sailak egingo dau kitapena, udal organoen erabakietan oinarrituta edo espedientea izapidetu dauan sailak barri emonda.

3- Aldez aurreko komunikazioaren prozeduraren mende dauden obren kasuan, udal zerbitzuek gerora ikuskaritza edo egiaztapenak egiten dituztenean baino ez da sortuko tasa

4- Obrak edota bestelako jarduerak beharrezko lizentzia eskuratu aurretik edo dagokion aurretiazko jakinarazpena aurkeztu barik hasi edo betearazi badira, obra edo jarduera horiek baimentzeko modukoak diren ala ez zehazteko udal zerbitzu edo jarduerak egiaz ematen hasten direnean sortuko da tasa.

5- Tasa esandako edozein modutan sortuta, zenbatekoa ordaindu beharko da. Eskatzaileak uko egiteak edo gatzexrerteak ez dau ekarriko ordaindutakoa itzultzea ez egindako kitapena balio barik iztea.

6- Eraikuntza, instalazio edo obra egiteko kontratista bat baino gehiago dagoenean, aurrekontu edo kasuan kostu osoari jakon tasa kuotaren subjektu pasiboa aurrekontuan edo kasuan kostu osoan proportzino gehien daukan kontratistea izango da.

8.artikulua. ADIERAZPENA

1.- Urigintzako lizentziaren eskabideagaz batera, kasuan kasuko dokumentazinoa aurkeztu beharko da, legeriak eta urigintzako planeamenduak eskatzen dabena hain zuzen be.

2.- Eskabidea egin ostean hasikeran aurreikusten zan proiektua, obra edo instalazinoa aldatu gura bada, udalaren baimena eskatu beharko da dokumentazino egokia aurkeztuta.

9. artikulua. KITAPENAK

1- Orokorrean Tributu Kudeaketa Sailak egingo dau kitapena, 9. artikuluan jasotako kasuetan izan ezik, udal organoen erabakietan oinarrituta edo espedientea izapidetu dauan sailak barri emonda.

2- 1. eta 2 epigrafeetako kasuetan lizentzia emon eta gero, eskatzaileak adierazotako aurrekontuaren arabera egingo da behin behineko kitapena.

3- Udal administrazinoak kostu erreala eta efektiboa egiaztatu ahal izango dau eskatzaileak adierazotako obrak amaitu ostean, eta egiaztapen horren emoitzaaren arabera, behin betiko kitapena egingo dau. Azkenean, kendu egingo da behin-behingo kasu bakotxean ordaindutakoa.

4- Edozelan be, obra handietako titularrek obren kostu errealararen eta efektiboaren adierazpena aurkeztu behar dabe erabilerearen edo bizigaitasunaren lizentziaren eskabideagaz batera, halan danean, eta administrazinoak behin betiko kitapena egingo dau.

5- Behin-behineko kitapenen emoitzaiko zenbatekoak behin betiko kitapenetatik aterako dira, baina horreetako bakotxa kobretako jardunbidea aparte egingo da.

6- Lizentziaren titularidade aldaketaren kasuan behin betiko kitapena azken titularrari egingo jako, behin-betikoaren zenbatekoa behin betikoan kontura erregistratuta.

10. artikulua. AUTOKITAPENAK

1.- Tasaren ordainketa autolikidazio-araubidean eskatuko da eta aurreko komunikazioaren erregimenpean egongo dira Urigintzako Ordenantzan zehaztutako kasu zehatz hauetan:

- a) Obraren edo eraikuntzaren aurrekontua 18.000€ko kopurua gainditzen ez badu, BEZa kontuan hartu gabe.
- b) Eraikinaren egitura eta fatxada ez badira aldatzen.
- c) Etxebizitzaren banaketarik ez bada aldatzen.
- d) Egurrezko egitura duten eraikinetan ez bada sukaldeetako eta komunetako zorua aldatzen.

2.-Autolikidazio kasu hauetan Udal Administrazioan aurkeztu beharko dute aitorpena hori, Udalak banatutako eredu ofizialean. Eredu horretan tasa hau osatzen duten elementuak eta kuota finkatzeko beharrezko eta ezinbesteko diren gainontzeko datuak agertuko dira. Kuota hori aitorpena aurkezten den unean ordaindu beharko da.

3.- Obrak aldeztu aurreko komunikazioaren mende badaude, eta udal zerbitzuek gerora egiaztapen edo ikuskapenak egin badizkiete, sortuko den tasa administrazioak likidatuko du, ordaindu ahal izateko.

11. artikulua. LIZENTZIA ESKUALDATZEA EDO PROIEKTUA ALDATZEA.

5. eta 6. epigrafeetakoak egite ezberdin bi legeztatu aurreikusita dagozan ezkeren, lizentziaren eskualdatzeagaz batera hasikerako proiektuaren aldaketa be eskatzean, epigrafe bietakoak ordaindu beharko dira eta kitapen bereiztuak egingo dira.

12. artikulua. ZERGA HUTSEGITEAK ETA ZEHAPENAK

Zerga arau-hausteen eta horreen kalifikazio desberdinen inguruan, baita kasuan kasuko zigorraren inguruan be, Tributuen ganeko Foru Araua eta Zergen Kudeaketa, diru-bilketa eta zerga ikuskapenen ordenantza orokorreko arauak aplikatuko dira.